

Datorren astean sindikatu guztiokin izango den bileran, aurrez aurreko ikasturte seguru eta adostuak behar dituen neurri zein baliabideak jartzeko exijituko diogu EAEko Hezkuntza Sailari

Hezkuntza Saila izaten ari den jarrerarekin argi uzten ari da mobilizazioa ezinbestekoa dela

Sindikatuok pasa den ikasturteko maiatza hasieratik ari gara ikasturte honetarako beharrezkoak diren baliabide gehigarriak adosteko negoziazio bideak irekitzeko galdegiten Hezkuntza Sailari. Pasa den ikasturtea, aurrez aurreko ikasturte seguru eta adostu baten aldeko mobilizazioekin amaitu genuen eta hau greba egun bat barneratu duen mobilizazio dinamika batekin hasi dugu.

Irailaren 23an, EAEko hezkuntzan Irailak 15ean gauzatutako grebaren balorazioa egitearekin batera, hezkuntzako sindikatuok Hezkuntza Sailaren berririk gabe jarraitzen gurela adierazi genuen, eta ondorioz Urriak 2rako manifestazioen berri eman. Astelehen honetan, Irailak 28an, aurkezpenetarako kortesiazko bilerez aparte, Jaurilaritzaren aldetik negoziatzeko bilera deialdirik gabe jarraitzen gurela ere salatu dugu. Honekin batera, Hezkuntza sailaren aldetik pausorik ematen ez zenez, sindikatuok geuk, behingoz gurekin eseri eta Irailaren 30erako negoziatzeko bilera baterako deialdia luzatu geniola adierazi genuen.

Honi gehitu behar zaio azken egunotan Hezkuntza Sailak aldebakarreko erabakiak hartzen jarraitu duela, besteak beste, sukalde eta garbiketako sektoreetan langileen ordezkariekin negoziatu gabeko kontratazio prekarioak eginik. Sektore hauetan berriro ere inprobisazioak gidaturik, eraginkortasun oso mugatua izango duten zein planifikazio zehatz bati erantzuten ez dioten errefortzurako kontratazioak egin dituzte, langile hauen prekarizazioan sakontzen duten lau hilabeterako kontratuekin.

Ikasturtea hasi denetik hezkuntza komunitatea osatzen dugunok modu desberdinetan ari gara gure kezka, haserrea, eta Hezkuntza Sailaren arduragabekeria zein aldebakartasuna salatzen. Zentzu honetan, irailaren 15eko greban kaleak betetzeaz gain, ugariak izan dira ikastetxe zein kolektibo desberdinen arazoak azalertzeko abian jarri diren ekimenak; elkarretaratzek, adierazpen publikoak, tuperradak, kaleko jantoki inprobisatuak, edota zuzendaritza taldeetako dimisoak, besteak beste. Ekimen eta mobilizazio hauen aurrean, oso modu partzialean eta mugatuan bada ere, Hezkuntza Saila erantzun mugatu batzuk ematera behartua izan da.

Bilera deialdi bat lortzeko ere ezinbestekoak izan dira gauzatzen ari garen mobilizazio zein ekimen desberdinak. Horrela, atzo arratsaldean, eta sindikatuok geuk Hezkuntza Sailari bilera deialdia luzatu geniola publiko egin ondoren, Hezkuntza sailak sindikatu guztiok egongo garen alde anitzeko negoziazio bilera baterako data proposamenak helarazi zizkigun.

Sindikatuok bilera horretara joango garela adierazteaz gain, gaurko kontzentrazio honen bitartez zein Urriak 2an hiru hiriburutan gauzatuko ditugun manifestazioen bitartez, Hezkuntza Sailari galdegiten diogu egoerak eskatzen dituen planifikazio integral eta irizpide komunak zein beharrezko baliabide gehigarriak negoziatzeko prest agertu dadila eta langileen ordezkariak mahai gainean jarri ditugun eskaerei erantzungo dioten planteamenduekin agertu dadila. Asmoetatik ekintzetara pasatzeko garaia da, urgentea baita neurri eraginkorrak eta hauek abian jartzeko beharrezko baliabideak ikastetxeetan lehenbailehen egotea.

Euskal Herrian 2020ko Irailak 30ean



En la reunión de la próxima semana con todos los sindicatos, exigiremos al Departamento de Educación del País Vasco que ponga las medidas y recursos necesarios para un curso presencial seguro y consensuado

Con la actitud que está teniendo el Departamento de Educación está dejando claro que la movilización es imprescindible

Los sindicatos estamos demandando al Departamento de Educación desde principios de mayo del pasado curso que abra la negociación para acordar los recursos adicionales necesarios para este curso. Terminamos el curso pasado con movilizaciones a favor de un curso presencial seguro y consensuado y hemos comenzado éste con una dinámica de movilizaciones que ha incluido una jornada de huelga.

El 23 de septiembre, además de realizar la valoración de la huelga del 15 de septiembre realizada en la educación de la CAV, los sindicatos manifestamos que seguíamos sin noticias del Departamento de Educación. Anunciábamos en consecuencia, la convocatoria de las manifestaciones para el 2 de octubre. Este lunes, 28 de septiembre, también hemos denunciado que, más allá de alguna reunión de cortesía para la presentación del equipo de educación, seguíamos sin convocatoria de reunión para negociar por parte del Gobierno. Por ello y ante su inacción fuimos los propios sindicatos los que convocamos al Departamento de Educación a una reunión de cara al 30 de septiembre, para que, de una vez por todas se sienta con nosotros/as y negocie.

A esto hay que añadir que en los últimos días el Departamento ha seguido tomando decisiones unilaterales, entre ellas contrataciones precarias no negociadas con la representación de los/as trabajadores/as en cocina y limpieza. En estos sectores, nuevamente guiados por la improvisación, se han realizado contrataciones de refuerzo que tendrán una eficacia muy limitada y que no responden a una planificación concreta, con contratos a cuatro meses que profundizan en la precarización de estas trabajadoras.

Desde que ha comenzado el curso los que formamos la comunidad educativa estamos denunciando de diferentes maneras nuestra preocupación, indignación, y la irresponsabilidad y unilateralidad del Departamento de Educación. En este sentido, además de llenar las calles durante la huelga del 15 de septiembre, han sido numerosas las iniciativas que se han puesto en marcha para sacar a la luz los problemas de los diferentes centros educativos y colectivos. Entre otros, se han realizado concentraciones, declaraciones públicas, tuperradas, comedores callejeros improvisados o dimisiones de equipos directivos. Ante estas iniciativas y movilizaciones, aunque de forma muy parcial y limitada, el Departamento se ha visto obligado a dar algunas respuestas limitadas.

Solo para conseguir una convocatoria de reunión también han sido imprescindibles las diferentes movilizaciones e iniciativas que estamos llevando a cabo. Así, ayer por la tarde, y después de que los propios sindicatos hiciéramos pública la convocatoria de reunión al Departamento de Educación, el Departamento nos hizo llegar propuestas de fechas para una reunión de negociación en la que estaremos todos los sindicatos

Además de señalar que los sindicatos acudiremos a dicha reunión, tanto a través de esta concentración de hoy en Lakua, como a través de las manifestaciones que llevaremos a cabo el día 2 de octubre en las tres capitales de la CAV, instamos al Departamento a acudir con disposición de negociar tanto la planificación integral y los criterios comunes, como los recursos adicionales necesarios que requiere la situación; así como que acuda con planteamientos que respondan a las demandas que hemos puesto encima de la mesa los/as representantes de los/as trabajadores/as. Es hora de pasar de las intenciones a los hechos, porque es urgente que las medidas efectivas y los recursos necesarios para ponerlas en marcha estén en los centros

escolares cuanto antes.

Euskal Herria a 30 de septiembre de 2020

